

2020. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2019ko urriaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2019/12/23. 244. zk.

ORDENANTZA FISKALA, BIDE PUBLIKOAN ZANGAK EDO KALIKATAK ZABALTZEAGAITIK ETA BIDE PUBLIKOKO ZOLADURA EDO ESPALOIETAN EDOZEIN MOTATAKO ALDAKETA EGITEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua: KONTZEPTUA.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21.artikuluaren ezarritakoagaz bat etorrira, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasea ezarri da, herri erabilerako lurretan kalikatak zabaltzeak eta bide publikoko zolaketa eta espaloiak mugitzeak dakarrena hain zuzen be. Tasa hori ordenantza fiskal honek arautuko dau, eta haren arauak Foru Arau horren 21. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko dabe.

2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA.

Udalaren herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa da egitate ezargarrria.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA.

Subjektu pasiboak dira lizentziak edo emakidak jasotzen dituen pertsonak edo erakundeak, edo aprobetxamenduaren onuradunak diranak, baimenik barik egin badira jarduerak.

4. artikulua: SORTZAPENA.

1.- Ordenantza honetan araututako tasea ordaindu beharra sortuko da herri bidean edozein eratako lanak egiteko lizentzia eskatzen dan momentuan, edo lana egiten dan unetik aurrera baimenik barik egin bada.

2.- Udalaren diru-bilketan eginiko zuzeneko ordainketearen bidez ordainduko da tasea.

5. artikulua: ZENBATEKOA.

1.- Ordenantza honetan araututako tasearen zenbatekoa hurrengoko 3. ataleko epigrafeetako zenbakietan ezarritako kontzeptuen eta zenbatekoan arabera kalkulatu da.

2.- Kopuru horretan atal honeek batuta lortuko da halan danean:

a) Lizentziaren emakida.

b) Bide publikoaren aprobetxamendua.

3.- Tarifak:

1.- Aurreko atalean esandakoak aintzat hartuta, erabilera orokorraren %10 gehituko da.

2.- Hauexek izango dira tasaren tarifak:

m2ko edo zatika eta hileko edo zatika.

Epigrafea	2020(€)
1	32,28
2	23,69
3	15,36
4	12,92
5	10,32
6	7,88
7	6,80
8	6,11
9	4,24
10	3,42
11	2,47
12	1,34
13	0,25

6. artikulua:

1. Lizentzia emotean, lizentziako aprobetxamenduaren iraupenaren eta eremuaren arabera egingo da zuzeneko kitapena.
2. Ikuskapena edo egiaztapena eginda hartutako eremua edo aprobetxamenduaren iraupen erreala altuagoak badira, kitapen osagarria egingo da, beti be zerga urratzeagatik egokia dan zigorra kontuan hartu barik.
3. Lizentzia barik eginiko aprobetxamenduetan, zuzeneko kitapena egingo da, ikuskapen edo salaketa espedientean agertzen diran datuen arabera.
4. Lizentzia emon ostean, ezin izango da bajarik edo kitapena aldaketarik egin, ezta ordaindutako kopuruak itzuli be, kasu baten izan ezik: obrak amaitu edo lizentzia iraungi baino lehen, uko egitea idatziz jasota izten bada beren beregi edo aprobetxamenduaren eremua eta denbora errealak adierazoten badira, horreek datuok lizentziako datuakaz bat ez datozeanean.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan ezarritakoagaz bat etorrira, onuradunak herri jabariaren berreraikuntza edo konponketen eta balio-galtzearen kalte-ordainen gastu guztiak ordaindu beharko ditu eta zenbatekoon gordailua egin beharko dau aldez aurretik.